

EUSKARA. Erreformak dioenez, «zeresana» duten elkarteak ariko dira, «betiere talde politikoek ondo baderitzote»

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Gasteizko Udaleko Euskararen Ordenantzaren hamargarren artikulua behin-behinean aldatzea onartu zuten atzo PPk, UAk eta PSE-EEk Lehendakaritza Batzordearen bileran. EAJ-EAk eta EHk kontra bozkatu zuten, eta IU-EB, berriz, ez zen egon.

Erreforma horren arabera, arautegiak hasieran aurreikusitako lan taldea bertan behera geratu da, eta, beraz, ordenantzaren garatzea Lehendakaritza Batzordearen esku geratzen da. Gainera, batzordearekin lanean ariko dira «zeresana duten elkarteak» soilik, «betiere talde politikoek ondo baderitzote», testu berriak hitzez hitz dioenez. PPk, UAk eta PSE-EEk batzordean gehiengoa dutenez, euren esku izango dute gaurgero parte hartzen dutenen onarpena.

Miguel Angel Etxebarria Lehendakaritza zinegotziak (PP) argi eta garbi adierazi zuen doikuntzaren esanahi praktikoa. «Ez dut nahi lan talde propio gehiagorik. Aurrerantzean batzorde hau beraz ariko da, eta une jakin batean ekarriren bat edo beste duten elkarteek parte hartuko dute», esan zuen hasieran. «Nolanahi ere, ezin dut bermatu elkarte guztiek une oro parte hartzea izango dutenik; talde politikoek erabakiko dituztenak ariko dira», zehaztu zuen.

UAK, arrazoirik eman ez bazuen ere, ontzat jo zuen erreforma. Bestetik, Juan Carlos Alonso PSE-EEko zinegotziak ere aldeko botoa eman zion, aldaketak «maiztasun jakin bateko ganorazko lanak» egingo direla bermatuko duelakoan, «partaidetza zabala» ziurtatzeaz gain. Halaber, betorik jartzeko modurik inork ez duela erantsi zuen.

EHk dio PPk «euskaltzaleei mespretxua» azaldu diela

EAJ-EAko Manu Allendek testu berritik zenbaitzuen parte-hartzea mugatzen duen atala kentzeko proposatu zuen, aipu hori udal arautegietan salbuespena dela gogoan hartuta. «Inoiz ez bada ezer esan *zeresana* duten elkarten parte-hartzea mugatzeko, zergatik oraingoan bai?», galdetu zuen. Jarra hori «susmagarria» dela esan zuen.

EHk, berriz, gogor kritikatu zuen artikularen aldaketa. «Atzerapauso galanta da, eta PPk mugimendu euskaltzaleei dien mespretxuaren isla ere bai», salatu zuen Eba Gonzalez de Herediak. Gainera, Etxebarriari —baita Alfonso Alonsori eta Ramon Rabanerari ere— egotzi zion Nafarroan Miguel

Elkarten partaidetza gabe garatu ahal izango dute udal ordenantza Gasteizen

PP, PSE-EE eta UA alderdiek euskararen araudia aldatu dute



MIREN SAEZ

Euskaltzaleen Elkarguneko kideek kontzentrazioa egin zuten udaletxe atarian.

ORDENANTZAREN ERREFORMA

«Talde politikoek ondo baderitzote»

Gasteizko Lehendakaritza Batzordeak Euskararen Ordenantzaren artikulua erabakigarriaren aldaketa onetsi du behin-behinean PP, UA eta PSEren botoekin. Hona hemen lehengoa eta oraingoa:

LEHEN

10. ARTIKULUA. LAN TALDEAK. «Ordenantza hau betetzen den egiaztatu eta aztertzeko, bai eta euskara sustatzeko ekimenak eta proposamenak lantzeko ere, Gobernu Batzordeak lan talde bat eratuko du, non Udal Talde Politikoek eta beste erakunde eta elkarte batzuek ordezkariak izango baitituzte. Lan talde horretako burua Alkatea izango da, edo hark horretarako eskua ematen dion zinegotzia, eta Udaleko Euskara Zerbitzuak laguntza teknikoa emango dio taldeari».

Sanzek ordezkatzeko duena izateko, «euskara txoko batean utzi eta Araba espainolizatzeko asmoz».

Hitzok sutan jarri zuten Etxebarria, eta adierazpenekin EHko zinegotziak «markatuta» sentitzen zela esan zuen. «Irudi-pena daukat aurki jopuntuan

egongo naizela», gehitu zuen PPkoak.

Lehendakaritza zinegotziak inoiz ez bezalako tonu garrantzua erabili zuen Euskaltzaleen Elkarguneko kideen esanez ari zela (taldeko bi kidek parte hartu zuten atzoko saioan gonbidatu gisara). «Kritika kritika-

gatik, horixe baino ez duzue nahi, areago helburua PP baldin bada», esan zien.

Euskaltzaleek, dena den, giza legeaz aritu ziren une oro, baita Etxebarriak mehatxu moduko esaldi bat bota zuenean ere. «Guk, PPkook, oraindik ez dugu pauso bakar bat eman Gastei-

zen euskara desager dadin», esan zuen PPko kideak. «Zer esan nahi du *oraindik* horrek? Heltzeko daudela akaso?», galdetu zion Urko Aierbe Elkarguneko bozeramaileak.

Euskaltzaleen ustez, arautegia «ahulduta» gertatu da

Euskaltzaleen Elkargunea gaur bilduko da, eta batzordean abiatutako erreforma aztertuko du. Dena den, argi eta garbi azaldu zuen atzoko saioan izandako txanda laburretan ordenantzak «ahulduta» gertatuko direla aldaketaren ondotik. Erreforma bertan behera uzteko eskatu zuen lan taldean udal arautegiaren «tresna interesgarria» zelakoan.

Bestalde, EAJ-EAk eskatu zuen aldaketaren testua parte-hartzaileen mugatzeaz dioena kenduta bozka zedin, baina ez zuten begi onez ikusi.

Erreforma Arabako Argitalpen Ofizialean plazaratu eta informazio publikoan izango da 30 egunetan «erreklamazioak nahiz iradokizunak» aurkeztu ahal izateko.

ESANAK

MIGUEL ANGEL ETXEBARRIA

(PP)

«PPkook oraindik ez dugu Gasteizen pauso bakar bat eman euskara desager dadin»

«Batzordean ez dira beti elkarte guztiak ariko, talde politikoek erabakiko dituztenak baizik»

EBA GONZALEZ DE HEREDIA

(EH)

«Nafarroako Miguel Sanzen EAEko aurpegiak dira Alfonso Alonso edo Miguel Angel Etxebarria»

MANU ALLENDE

(EAJ-EA)

«Udal arautegiek ez dute inoiz ezer esan *'zeresana'* duten elkarteak mugatzeko. Zergatik orain bai?»